

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

sortu

ESPACIO

Galderak

FUTURE

ideas

Preguntas

URVIEHU

$E=mc^2$

DISCOVER

Ideiak

ecología

Solución

berrikuntza

Learning

Ikasi

CREATION

SOCIEDAD

Geografía USE 2018

www.ehu.eus

literature

40%

30%

60%





GEOGRAFIA

GEOGRAFÍA

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Probaren balorazio orokorra 10 puntukoa izango da:

1. Ariketa praktikoa: 4 puntu.

Kontuan hartuko da ea mapak ondo egiten diren, aurkeztutako materiala ulertzen den eta era egokian interpretatzen den.

2. Gai bat garatzea: 4 puntu.

Ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna hartuko dira kontuan.

3. Kontzeptu geografiko batzuk definitzea: 2 puntu.

Kontzeptu bakoitza definitzeko, gehienez, 5 lerro erabil daitezke. Definizio bakoitza 0tik 0,5era kalifikatuko da.

Kontzeptuak argi eta zehatz definitzen diren hartuko da kontuan.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

La valoración total de la prueba será de 10 puntos:

1. Prueba práctica: 4 puntos.

Se valorará la correcta elaboración de los mapas, y la comprensión y correcta interpretación del material presentado.

2. Desarrollo de un tema: 4 puntos.

Se valorará el nivel de conocimientos y la capacidad para establecer relaciones.

3. Definición de conceptos geográficos: 2 puntos.


Cada concepto debe ser definido en una extensión que no sobrepase las 5 líneas. Cada definición se valorará de 0 a 0,5 puntos.

Se valorará la claridad y precisión de las definiciones.



A AUKERA

1. Espainiako hiri-hierarkien maparen iruzkina (4 puntu)



Iturria: Muñoz-Delgado, 2009.

2. Turismo-jardueraren bilakaera eta egungo garrantzia Euskal Autonomia Erkidegoan. (4 puntu)

3. Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko 5 lerro, gehienez):

- Europar Batasuna (0,5 puntu)
- NPE (Nekazaritza Politika Erkidea) (0,5 puntu)
- Mendigune zaharra (0,5 puntu)
- Goi-teknologiako industria (0,5 puntu)




GEOGRAFIA

GEOGRAFÍA

B AUKERA

1. Klimogramari eta horri dagokion landaretza motari buruzko iruzkina. (4 puntu)



2. Biztanleriaren banaketa eta lurraldeen arteko desorekak Espainian (4 puntu)
3. Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko 5 lerro, gehienez):
- Deslokalizazio industrial (0,5 puntu)
 - Biztanleriaren benetako hazkundera (0,5 puntu)
 - Abeltzaintza estentsiboa (0,5 puntu)
 - Biztanleria aktiboa (0,5 puntu)



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

GEOGRAFIA

Azterketaren balorazioa egiteko, kontuan hartuko da ea galdera praktikoan, galdera teorikoan eta kontzeptuen definizioan zuzen erantzuten zaion galdetzen denari.

Irizpide orokorrak

Bereziki kontuan hartuko da:

- kontzeptuen argitasuna
- idazkeraren zuzentasuna eta heldutasuna
- erlazionatzeko gaitasuna
- elementu eta faktoreak sailkatzeko gaitasuna
- erantzun ordenatua egituratzea
- mapa/lauki/taula edo grafikoen iruzkina erlazionatzea eta kartografiako kokapen zuzenak egitea.
- ezagupen-maila

Irizpide espezifikoak

A AUKERA

1. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

– *Explica la jerarquización urbana española.*

Estándares de aprendizaje evaluables, Orden ECD/42/2018

7.– Populatzeko motak bereiztea. Espainiako urbanizazio-prozesua lurraldea hiri-sistemaren konfigurazioaren bitartez antolatzeko modu gisa interpretatzea. Eta, era berean, hirien morfologiaren eta funtzioen oinarriko alderdiak eta hiri-espazioan duten banaketa ezagutzea eta identifikatzea.

Ebaluazio-irizpideak, 127/2016 Dekretua

Alderdi hauen tratamendua balioetsiko da: hirien tamaina demografikoa, haien eginkizunak eta haien eragin-esparruaren hedadura kontuan izanda, hirien antolaketa hierarkiko bat eratu da, kategoria hauek dituen (kategoria horien ezaugarriak eman behar dira):

- metropoliak: > 200.000 biz., eginkizun dibertsifikatu eta espezializatuak, eta eragin-esparru zabala
 - estatukoak: Madril eta Bartzelona
 - eskualdekoak: Valentzia, Sevilla, Bilbo, Málaga eta Zaragoza
 - eskualdez azpikoak edo bigarren mailakoak: Valladolid, Iruñea edo Palma
- hiri ertainak: 50.000-200.000 biz. (aurreko atalean sartzen ez diren probintzia-hiriburuak)
- hiri txikiak: < 50.000 biz.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

- Identifica las características del sector terciario español.
- Explica la incidencia que para la economía española posee el sector.
- Analiza las desigualdades del espacio turístico.

Estándares de aprendizaje evaluables, Orden ECD/42/2018

4.– *Jarduera ekonomikoak eta haiek eragiten dituzten eraldaketak aztertzea, ingurunearen eta gizataldeen arteko erlazioa, gizatalde horien kokapen-faktoreak eta banaketa ezagutzea, egungo joerak azaltzea eta joera horiek Europako testuinguruan balioestea.*

Ebaluazio-irizpideak, 127/2016 Dekretua

Alderdi hauen tratamendua balioetsiko da:

- Hasiera XIX. mendearen amaieran izan zela adieraztea eta ezaugarriak ematea
- egungo potentzialitateak eta baliabideak
- eskaintzaren eta eskariaren ezaugarriak
- turismo-modalitateak: kostakoa, ekoturismoa, landakoa, kirol-turismoa, kultura-turismoa eta kongresu, konbentzio eta negozioetako turismoa
- turismo-politika

3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

Europar Batasuna: Europako Ekonomia Erkidegoaren oinordekoa den erkidego ekonomiko eta politikoa, 1993an sortua eta Europako 28 estatuz osatua. Haren organo erabakitzaile nagusiak Parlamentua, EBko Ministro Kontseilua eta Europako Batzordea dira.

NBP (Nekazaritza Politika Erkidea): Europako Erkidegoa osatzen duten estatuetan aplikatzen den nekazaritza-politika. Ondorioak, besteak beste, hauek dira: Europako merkatu bakarra sortzea eta arautzea, eta lurralde bakoitzeko jarduera esparru horretara egokitzea.

Mendigune zaharra: Paleozoikoko material kristalino eta metamorfiko zurrinak Alpetar orogenesisian sabeltze edo haustura bidez deformatzean eratu zen formazio geologikoa.

Goi-teknologiako industria: ezagutza zientifiko eta teknologikoen berritze azkarra eta konplexutasun-maila handia ezaugarri dituen industria mota, I+G-ko etengabeko ahalegina eta oinarri teknologiko sendoa eskatzen duena.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

B AUKERA

1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4.

– Comenta climogramas específicos de cada clima.

Estándares de aprendizaje evaluables, Orden ECD/42/2018

3.– Jakitea zein diren ingurune naturalaren ezaugarri orokorrak, Espainian eta Euskadin dauden multzo naturalak ezagutzea, multzo horiek mapan aurkitzea, haien elementuak eta dinamika identifikatzea, haien interakzioak azaltzea eta gizakiaren ekintzak betetzen duen zeregina balioestea.

Ebaluazio-irizpideak, 127/2016 Dekretua

Alderdi hauen tratamendua balioetsiko da:

- Erregimen termikoa eta prezipitazio-erregimena urte-sasoika deskribatzea, lehorraldiak eta eurialdiak, hotzaldiak eta beroaldiak eta urte-sasoien arteko aldeak nabarmenduz. Ezaugarri horietatik abiatuta, estazio meteorologiko horren klima deduzitzea eta klima-barietate horri zer kokapen dagokion zehaztea. Zer landaretza legokiokkeen adieraztea.

Klima ozeanikoa. Prezipitazioak ugariak eta erregularrak (urteko kopurua > 800 mm). Eurien banaketa nahiko erregularra da, fronte polarreko depresioek etengabe jarduten baitute. Prezipitazio gehien neguan du, depresio horien maiztasuna handiagoa delako; udan, berriz, minimo erlatibo bat du, Azoreetako antizikloiaren eraginez. Anplitude termiko txikia kostan, itsasoaren eraginez (9 °C eta 12 °C artean). Uda freskoa (batez besteko temperatura ez da 22 °C edo handiagoa inongo hilabetetan). Negu moderatua (hilabete hotzeneko batez besteko temperatura 6 °C eta 10 °C bitartekoa da). Estazio meteorologikoa: Bilboko aireportua - Latitudea: 43° 17' 53" N Longitudea: 2° 54' 23" W- Baso hostoerorkorra, zakardia eta belardia.

2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

– Comenta la población de las regiones que crecen y las que disminuyen su población.
– Explica las relaciones entre Comunidades Autónomas en relación con las migraciones interiores.

Estándares de aprendizaje evaluables, Orden ECD/42/2018

6.– Biztanleria funtsezko faktore gisa ulertzea (izan ere, biztanleriaren banaketak, dinamikak eta egiturak eragin garrantzitsua dute espazioa osatzeko prozesuetan). Eta, era berean, desberdintasun ekonomikoaren, biztanleriaren banaketa desberdinaren, migrazio-mugimenduen edo biztanleriaren zahartzearen arrazoiak eta ondorioak azaltzea.

Ebaluazio-irizpideak, 127/2016 Dekretua



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

Alderdi hauen tratamendua balioetsiko da:

- biztanle-dentsitatearen aldagaia erabiltzea, zer esanahi duen adieraztea eta haren batezbesteko balioa Europakoarekin konparatzea.
- dentsitate handiko eta txikiko inguruak aipatzea.
- banaketa hori azaltzen duten faktoreak aipatzea:
 - industria aurreko aroa: XVI., XVII., XVII. mendeak. Kostaldearen eta barnealdearen arteko aldaketak
 - aro industrialala: kontrasteak areagotzea; faktore horiek igoera eragiten dute Madrilan; Galizia, Andaluzia eta Murtzia; Asturias, gaurko EAE eta Katalunia; Ebroren eta Mediterraneoaren ardatzak eta uharteak.
 - aro industrialaren osteko aldia: kontrasteak leuntzea. Madrileko eta Mediterraneoako eta Ebroko ardatzak sendotzea eragiten duten eta, era berean, deskontzentrazio demografiko eta ekonomikoko prozesuak sustatzen dituzten faktoreak: zerbitzuen nagusitasuna, industriaren banaketa espaziala, nekazaritza teknifikatua, garapen endogenoa eta atzerriko immigrazio handiagoa.

3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

Deslokalizazio industrialala: lantegi industrial bat bere jatorrizko kokapenetik beste batera (beste hiri, eskualde, herrialde edo kontinente batera) osorik edo partez lekualdatzea, ekoizpen-kostuak murrizteko (soldatetan, zergetan, etab.) eta, hala, enpresaren mozkinak handitzeko. Globalizazioari lotutako prozesu bat da.

Biztanleriaren benetako hazkundera: berezko hazkundera eta migrazio-saldoaren batura.

Abeltzaintza estentsiboa: inguru fisikoaren menpeko jarduera, abereak belardietan, larreetan eta uztondoetan elikatzen duena. Arraza autoktonoei eta lan-teknika tradizionalari lotuta egoten da.

Biztanleria aktiboa: ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko eskulana ematen duten pertsonen multzoa eta ekoizpen-prozesuan sartzeko egoeran eta aukeran dauden pertsonen multzoa.